

Balore Merkatuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, 2015eko urriaren 23koaren, 228. artikulua jasotakoari jarraikiz, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito honako honen berri eman dio Balore Merkatuko Komisio Nazionalari, merkatuan ezagutzera eman dezan:

GERTAERA GARRANTZITSUA

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito jakinarazpena jaso du Espainiako Bankutik. Horren bidez, egindako berrikuspena eta ikuskapen-ebaluazioa oinarri hartuta, entitateari 2018ko ekitaldian aplikatuko zaion kaudimen-errekerimenduaren berri eman dio. Espainiako Bankuak ez ditu aldatu Caja Laboral Popular Coop. de Crédito aurreko urtean eskatutako zuhurtziazko errekerimenduak, *fully loaded*ari dagokionez.

Errekerimenduak eskatzen dio Caja laboral Popular Coop. de Crédito, Common Equity Tier 1 (CET1) ratioan gutxieneko % 8,005eko phased-in ratioari eta Kapital Osoan % 11,505ekoari eusteko, bai jarduera indibidualean bai bateratuan.

Kapital-errekerimenduak hauek hartzen ditu barne:

- CET1 ratioan % 4,50eko 1. oinarriko gutxieneko errekerimendua eta Kapital Osoan % 8,00koa.
- 2. oinarriak eskatzen duen % 1,63ko gainbegirale-errekerimendua.
- 2018an aplikatzeko % 1,875eko kapitalari eusteko koltxoia, 2019an % 2,5ean finkatuko dena.

Caja Laboral Coop. de Crédito, phased-in bertsioan, % 16,73ko CET1 kapital-ratioa eta Kapital Osoan % 17,08ko ratioa aitortu zituen, joan den iraileko baliabide propioen aitortupenean. Data horretako *fully loaded* bertsioan, % 17,52an eta % 17,87an zeuden, hurrenez hurren, adierazleok. Ratio horietan ez dira sartu ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetan metatutako emaitzak.

Arrasate, 2018ko urtarrilaren 2a